

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KINTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, "San Migel" izeneko VI-10148 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena

Lehiaketa publikoa, "San Migel" izeneko VI-10148 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Kintako eta Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarren lurrek osatzen baitute eta titularra, jabe taldearen ordezkarietan, Kintako Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria da zazpi mila eta bederatziehun (7.900) euro urteko, BEZa barne; gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendurako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

"San Migel" izeneko VI-10148 esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onartu behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Kinta, 2019ko uztailaren 15a

Lehendakaria

ÁNGEL LUIS RITUERTO AGUIRIANO